

## Euskal AEko industria-jarduera % 1,4 jaitsi da 2024ko apirilean


**2024ko lehenengo lau hilabeteetako metatuen, Industria Produkzioaren Indizea % 0,1 jaitsi zen**

2024ko apirilean, Euskal AEko industria-produkzioa aurreko urteko hil berean izandakoa baino % 1,4 txikiagoa izan zen, Eustatek landutako datuen arabera eta lan-egutegiko baldintza homogeneoetan.

Aurreko hilaren aldean, Euskal AEko industria-jarduera % 4,9 murriztu da, dagozkion urtaroen ondorioak zuzendu ondoren.

### Euskal AEko Industria-produkzioaren indizearen urte-arte aldakuntza-tasa (%)

Jaiegunen eraginetatik zuzendua



Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Ondasunen helburu ekonomikoaren arabera, *Kontsumo-ondasunek* urte arteko portaera negatiboa izan zuten 2024ko apirilean, eta produkzioa % 7,3 jaitsi zen sektore osoan. Beherakada hori, batetik, *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* portaerak eragin du, % 5,3ko jaitsiera izan baitu – elikagaiak prozesatzeko eta kontserbatzeko jarduerak, garbiketarako eta higienarako produktuen fabrikazioa, produktu farmazeutikoak, jantziak egitea –; bestetik, *Kontsumo-ondasun iraunkorren* produkzioak, % 16,5 egin baitu behera. Azken horien artean altzarien eta etxeko tresnen fabrikazioa jasotzen da, besteak beste.

*Ekipo-ondasunen* produkzioa, aldiz, % 5,8 igo da aurreko urteko apirilaren aldean. Honetan kokatzen dira ibilgailu motordunen fabrikazioa, tren-makinen eta trenbide-materialen eraikuntza eta eraikuntza aeronautikoa.

*Energiaren* produkzioa, bestalde, % 3,2 jaitsi da 2024ko apirilean, aurreko urteko hil beraren aldean. Sektore honetan sartzen dira energia elektrikoaren ekoizpena eta hornidura eta petrolioaren fintzea.

*Bitarteko ondasunen* produkzioa (metalurgia eta metalezko produktuen fabrikazioa, industria kimikoa eta kautxuzko eta plastikozko produktuen fabrikazioa barne) % 2,4 jaitsi da.

## Euskal AEko Industria produkzioaren indizea lurralde historikoaren eta ondasunen helburu ekonomikoaren arabera. Aldakuntza-tasak (p). Apirila 2024

|                                                           | Egutegi eraginak zuzendutako datuak |              | Datu desestazonalizatuak |
|-----------------------------------------------------------|-------------------------------------|--------------|--------------------------|
|                                                           | m / m-12                            | Am / A(m-12) | m / m-1                  |
| <b>INDIZE OROKORRA</b>                                    |                                     |              |                          |
| <b>Euskal AE</b>                                          | -1,4                                | -0,1         | -4,9                     |
| Araba/Álava                                               | -5,6                                | -2,8         | -4,6                     |
| Bizkaia                                                   | -3,8                                | -0,4         | -5,6                     |
| Gipuzkoa                                                  | 3,8                                 | 1,7          | -4,4                     |
| <b>ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK</b> |                                     |              |                          |
| Kontsumo-ondasunak                                        | -7,3                                | -1,2         | -6,2                     |
| Kontsumo-ondasun iraunkorrak                              | -16,5                               | -9,1         | -12,4                    |
| Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak                           | -5,3                                | 0,6          | -4,8                     |
| Ekipo-ondasunak                                           | 5,8                                 | 4,0          | -2,0                     |
| Bitarteko ondasunak                                       | -2,4                                | -1,7         | -3,7                     |
| Energia                                                   | -3,2                                | 2,4          | 0,6                      |

(p)Behinbehineko datuak

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Am / A(m-12) Urte arteko aldakuntza-tasa, urtarrietik behatutako azken hilera arte metatutako aldian (Am), aurreko urtean pilatutako aldi beraren (A(m-12)) aldean

m / m-1 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

Data 2024ko Ekainaren 5a

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Maila bereiziagoan, Euskal AEko industrian pisu handiena duten sektoreen artean, 2024ko apirilean, urte artean, honako sektore hauek izan dute beherakada: *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 8,6), *Kautxua eta plastikoak* (% 7,0) eta *Elikagaien, edarien eta tabakoaren industriak* (% 6,6). Urte arteko hazkunderik handienak, berriz, *Makineria eta ekipoa* (% 7,0) eta *Garraio-materiala* (% 3,7) sektoreek izan dituzte.

## Euskal AEko Industria produkzioaren indizea. Sektore A38 nagusiak (1). Urte arteko hazkunde-tasa (p). Apirila 2024

|                                      | m / m-12 |
|--------------------------------------|----------|
| Elikadura ind., edariak, tabakoa     | -6,6     |
| Zurgintza, papera eta arte grafikoak | -0,5     |
| Kautxua eta plastikoak               | -7,0     |
| Metalurgia eta produktu metalikoak   | -1,0     |
| Materiala eta tresna elektrikoak     | -3,7     |
| Makineria eta tresneria              | 7,0      |
| Garraio-materiala                    | 3,7      |
| Energia elektrikoa, gasa eta lurruna | -8,6     |

(p)Behinbehineko datuak

Egutegi eraginak zuzendutako datuak

(1)Euskal AEko industrian pisurik handiena duten sektoreak

Data 2024ko Ekainaren 5a

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Industria-Produkzioaren Indizearen urte arteko bilakaera, 2024ko apirilean, negatiboa izan da Araban eta Bizkaian, produkzioa % 5,6 eta % 3,8 jaitsi baita, hurrenez hurren; Gipuzkoan, aldiz, produkzioa % 3,8 igo da.

### 2024ko APIRILEKO BALANTZE METATUA

Urteko lehen lau hilabeteetako metatuan, Industria-Produkzioaren Indizea % 0,1 jaitsi da. Kontsumo-ondasunetan, apirilera arte metatutako produkzioa % 1,2 jaitsi da, eta bitarteko ondasunetan % 1,7. Aitzitik, ekipo-ondasunak eta energia gehitu egin ziren, % 4,0 eta % 2,4, hurrenez hurren.

Lurralde historikoka, 2024ko lehenengo lau hilabeteetako metatua balantze positiboarekin itxi da Gipuzkoan, produkzioaren % 1,7ko igoerarekin. Araban produkzioa % 2,8 jaitsi da eta Bizkaian % 0,4, aurreko urteko aldi metatu beraren aldean.

## INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazioa biltzen lagundu duten establezimendu guztiei. Horiei esker, hilabete honetako indizea laginaren % **91,52ko** estaldurarekin kalkulatu da.

---

### Informazio gehiago:

*Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística*

*C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz*

*Prentsa-zerbitzua: [servicioprensa@eustat.eus](mailto:servicioprensa@eustat.eus) Tlf: 945 01 75 62*